

Zarauzko Frantziskotarrak (1610-2010)

El 7 y 8 de mayo el histórico Convento franciscano de Zarautz cumple su cuarto centenario de historia. No faltarán las celebraciones correspondientes en esta Villa guipuzcoana, recordando las sucesivas formas de vida y trabajo que ha conocido este Convento, al servicio de Zarautz y de numerosas Parroquias del País, con sus frailes recoletos, sus predicadores misioneros y sus centros educativos. Son episodios sucesivos, dignos de nuestro recuerdo.

Zarauzko fraide frantziskotarren Komentuak oraintxe betetzen ditu bere 400 urteak. Luzea izan da, beraz, ibilaldi hau, baina ez aldakuntza eta larrialdirik gabea. Bertako fraideek, betiko fraideak izanik ere, biziera ezberdinak ezagutu dituzte eta beren lanbideak ere aldatuz joan dira neurri handi batean, betiere elizan herritarrei ohiko zerbitzuak leialtasunez eskaintzen zizkieten bitartean.

Komentu honen historia hiru epealdi handitan bana dezakegu: lehenengoa Komentu barruko bizitzara emana batik bat (1610-1746), bigarrena fraide Misiolari-Kolegioarena (1746-1840) eta, azkenik, Komentu izanberri-uaarena (1867/1876-2010). Baina ez da ahaztu behar Komentua debora batez itxita ere egon zela (1840-1867).

Frantziskotar errekoletok

Komentuaren sorrerak bere gorabeherak izan zituen, nahiz eta lehenengo batean herriko agintari eta auzotarrek aho batez onartu erai-kuntzaren asmoa, Komentu baten sortzeak premia ekonomikoak ere berarekin zekartzan eta. Horregatik J. Mantzisor fundatzailearen, Arantzazuko Probintziako fraideen, Zarauzko

herritarren eta Parrokiako apaizen artean negoziaketak bideratu behar izan ziren lehen-dabizi (1610).

Zarauzko Etxe hau Komentu errekoletok bezala jaio zen, hau da, Arantzazuko Probintzia Erlijosoren barruan bizimodu hertsia-goa zuela eta bere arautegi bereziarekin. Gainerakoan, aipatutako negoziaketan onartutako zereginak bete beharko zituen, fundatzaileen eskubideak zainduz.

1617an aldatu ahal izan ziren fraideak jaso berria zen Komentura, gaur ere hor zutik dagoen eraikinera. Interesgarria da azpimarratzea, baldintza berri bat ere ezarri zitzaiola fraidearte berriari: Errekoletok izatea utzi gabe, Komentuak eskola ere emango zuen. Horrela geratu zen Etxearen nortasuna definituta.

Bitartean, Zarautzen beste komentu frantziskotar bat ere sortu zen, 1611n, moja klaratarrena, alegia, gaur arte bizirik egon dena. Ikusten da, beraz, pisu handiko ekimen bi bideratu zirela herri honetan XVII. mendeko hilabete gutxi haietan

Misiolarien Kolegioa (1746-1840)

Zarauzko Komentu honek Misiolari-Kolegio



bezala irabazi zuen ospe handia, XVIII-XIX. mendeetan. Misiolari-Kolegio hauek nortasun juridiko berezia zuten, eta frantziskotarren gainerako Komentuekin batera Probintzia bera osatu arren, bizieraz eta eginkizunetan alor bereziak lantzen zituzten.

1746an Zarauzko honek izaera berezi hori hartu zuen. Misiolari-Kolegioak aurreko mendetik hasita eratu zituen Elizak, herrialde ez-kristauean lan egiteko (*Misioetan*, esan nahi dut), baina laster baita herri kristauean hezibide bizkorrago baterako tresna bezala ere.

1950. hamarkadako herri-misioaldiak ezagutu genituenok kasik bertatik bertara ezagutzen dugu Misiolari-Kolegio hartako fraide sermolariek egiten zuten lana. Zortzi-hamabost egun edo gehiagotan, misiolari predikariek osorik hartzen zuten deitzen zien herria: egutegi eta ordutegi jakin batekin, elizan bertan eta kale eta inguruko bideetan entzuten zen sermolarien onbiderako deia.

Lanbide horrek, ordea, misiolarien gaitasun pertsonala ez ezik prestakuntza oso landua eskatzen zuen. Horretarako ziren "Kolegio" deitutako Komentu hauek. Zarauzkoak arrakasta eta estimu handiak irabazi zituen Euskal Herrian, eta sermolaria bezala idazle onak ere eman zituen.

Aro Garaikidean (1794...)

Konbentzioko gerratean frantsesak lehenengoz Zarautza iritsi zirenetik, 1867 eta 1876a arte garaian garaiko aldarte txar anitz ezagutu zuen Komentuak (etxea itxi egin zuten, eta

fraideak preso hartu). Laurogei urtetako kalbarioa, hainbat gerra ere tarteko zela.

1876an hasiko da, zinez, aro berria, Zarauzko Etxe hau hazi, zeregin berriak sortu eta ekimen handikoa izango dena. 1920ko hamarkada arte, Arantzazu Probintziako Nagusien egoitza ere izan zen, nolabait esateko Probintzia horretako buru eta bihotz, Nobiziategia ere bertan zuela, 1969a arte. Euskal Herriko Hirugarrendar herritarrek ere hemen izan zuten beren zerbitzu-gune orokorra azken mendean (gogora Aita Ugarte, Agirretxe eta abar).

XX. mendean, Aita Epelde (1870-1956) eta beste hainbat fraide langileri esker, herriherriarekin batera Antoniotarren Ikastetxeak hazkuntza ederra izan zuen, eskola-modu apalenetik ekin eta Unibertsitate-atariraino, Lanbide-Heziketako goi-mailaraino.

Horren ondoan esan beharra dago, frantziskotarrek inon gutxitan bezala bereganatu ahal izan dituztela herritarrak Zarautzen. Horren lekuko dira sortutako eliz Elkarte handiak: Antoniotarren hori eta, helduagoen artean, laikoan Hirugarren Ordena (herriko 1.477 hirugarrendar, 1935ean).

Azkenik, ezaguna da Oñatirekin batera Zarautz izan dela frantziskotarretarako fraidegai gehien emandako herria. Etorkizuna nolana hikoia dela ere, aipatutako historia hori eginda geratu da.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580